

NARRAZIOAK ETA OLERKIAK

2016

2016

NARRAZIOAK ETA OLERKIAK



bbk



R. M^a AZKUE

SARIA

NARRAZIOAK ETA OLERKIAK

NARRAZIOAK ETA OLERKIAK

R. M^a Azkue saria

2016

BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

BILBO

2017



EUSKALTZAINDIA

bbk²

Testuen hizkuntza-orrasketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia (HIZBEA)

© Idazle bakoitzak bere testuarena
eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak argitalpen
honena

ISBN: 978-84-946477-3-4

L.G.: BI-1029-2017

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak deitutako 2016ko *R. M^a Azkue* sarietan irabazle izandako narrazioak eta olerkiak batzen dira liburuki honetan.

* * *

Deialdian partaidetza-maila bi bereizi ziren adinaren arabera:

A Maila: 2003, 2004, 2005 eta 2006an jaiotakoak.

B Maila: 1999, 2000, 2001 eta 2002an jaiotakoak.

Generoari dagokionez, batetik, *narrazio* lanak eta, bestetik, *olerkiak* eskatu ziren maila bakoitzerako.

* * *

Lehiaketa eta liburu honekin, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak euskal eskola-umeak literaturgintzara bultzatzeaz gainera, euren artean irakurketa indartzea dute helburu nagusi.

AURKEZPENA

13 or.

«PARADISUAN, BIHOTZA ERDIBITURA»

Lohizune Telletxea Delgado, 13 urte

Oiartzun

Narrazioa. A Maila. Lehenengo saria

17 or.

«SLAMINO»

Mahalia Resampa, 11 urte

Ziburu

Narrazioa. A Maila. Bigarren saria

19 or.

«KLABE EZKUTUA»

Olatz Senar Usandizaga, 13 urte

Irun

Narrazioa. A Maila. Hirugarren saria

31 or.

«ZURE BEHARRA»

Izar Arronategi Mugeta, 13 urte

Gernika-Lumo

Olerkia. A Maila. Lehenengo saria

33 or.

«ITSASOA»

Libe Gargallo Eizagirre, 13 urte

Oiartzun

Olerkia. A Maila. Bigarren saria

35 or.

«DIRUDIENEZ»

Asier Morillo Alberdi, 13 urte

Azpeitia

Olerkia. A Maila. Hirugarren saria

37 or.

«MUXU GAZIAK»

Elene Etxaniz Uribe, 11 urte

Ondarroa

Olerkia. A maila. Epaimahaiaren aipamena

41 or.

«На **Лубянке** (LUBIANKAN)»

Peru Amorrortu Barrenetxea, 16 urte

Gasteiz

Narrazioa. B Maila. Lehenengo saria

57 or.

«ZU GABE»

Maddi Aiestaran Iparragirre, 15 urte

Beasain

Narrazioa. B Maila. Bigarren saria

65 or.

«BIDE ZUZENETIK OKER»

Idoia Granizo Uribarrena, 17 urte

Altsasu

Narrazioa. B Maila. Hirugarren saria

73 or.

«EZIN IZAN NUEN LORATU»

Lide Mikele Billelabeitia, 15 urte

Mungia

Olerkia. B Maila. Lehenengo saria

75 or.

«NAHI NUKE, BEHAR NUKE»

Anne Arrizabalaga Kortabarria, 14 urte

Oiartzun

Olerkia. B Maila. Bigarren saria

79 or.

«ITSASOAK SUTU DAITEZKE»

Idoia Granizo Uribarrena, 17 urte

Altsasu

Olerkia. B Maila. Hirugarren saria

PARADISUAN, BIHOTZA ERDIBITUTA

Lohizune Telletxea Delgado

Oiartzun

Oraindik ere gogoratzen dut biok jolasean, inongo arazorik edota hesirik gabe ibiltzen ginen garai hura, eguzkiak bezainbeste argi genuen garai hura, saltoka eta brinkoka matxinsaltoak bagina bezala ibiltzen ginen garaia. Siriako herrixka batean bizi ginen, Suluk lehorrean hain zuzen, udazkeneko hosto eroria baino leku lehorragoa, baina hain zen atsegina bertan egotea... Eskolatik korrika etortzen ginen elkarrekin, ez zegoen inongo eragozpenik; dena zen perfektua, edo hala ematen zuen behintzat. Etxetik irten bezain laster, *Salam Aleikum* entzuten nuen garai hura gogoan dut oraindik ere.

Orain, gure herria utzi genuenetik, ordea, dena da desberdina. Gahaada eta Akram lehendabizi eta gero bikia, joan ziren egunetik, dena aldatu da. Gahaada, gure amaren izena eta izana biak ziren bat; ederra zen. Haren ile beltz kizkurra bizkarretik behera, gerriraino heltzen zen; haren esku fin eta goxoak; haren begi berde eta sakonak... Akram aitaren izenak, berriz, eskuzabala esan nahi zuen eta guztiz bat zetorren haren izaerarekin.

Gogoan dut eskolatik etorritako egun batean, gure arropak poltsetan sartuta zituztela, gurasoak gure zain zeuden momentu hura, gu alaitzeko irribarre xume bat egiten saiatuz. Baina haien begietan ikus genezakeen ez zela betiko egoera alai. Honelaxe esan ziguten “bagoaz, hemen ez gaude ongi, mugaz bestalde joango gara, paradisura”. Paradisua Europa zen, baina guk orduan ez genekien, eta 6 urterekin hala onartu genuen, oso ongi ulertu gabe.

Abiatu ginen, urtebete ibili ginen noraezean eta gure egoera okertu besterik ez zen egin, ia jatekorik ere ez genuen. Beste herrialde batera joan ginen, baina hangoek ez gintuzten ulertzen, ematen zuen ez zirela gurekin fidatzen. Hainbat eta hainbat errefuxiatu hiltzen zen itsasoaz bestaldera joan nahian, eta horren berri izateak izutu egiten gintuen. Urtebete hura halaxe joan zitzaigun, eta gero eta tristeago geunden.

Heldu zen irailaren 1a, muga pasa eta itsasontzi xume horietako bat hartu behar genuen eguna. Mugara gindoazela, bat-batean danbateko bat entzun eta Gahaada lurrera erortzen ikusi genuen, eta segidan beste danbateko batekin Akram. Oraindik ere gogoan ditud amaren azken hitzak: “Zuek joan paradisura, ez galdu ilusioa, zuek ilusioz ikustea baita gure nahia”. Hantxe bakarrik geratu ginen Nabiha eta biok. Nire bikia zen Nabiha, baina niretzat nire bihotz erdia zen, bera gabe ez nintzen deus, bihotz erdi galdu bat baino ez. Nabihak amaren antz izugarria zuen, eta eguz-

kia bezain argiak zituen begi berde haiek urduri zeuden momentu hartan. Baina segituan gizon bat hurbiltzen ikusi genuen; berdez jantzitako soldadua zen, poltsiko ugari zituen hark bere jantzietan, eta haietan pentsatzen dut jendea hiltzeko balak zituela. Gizonak keinu bat egin zigun hurbiltzeko esanez bezala, eta ondoren irribarre egin zigun. Haiek ziren haiek zerriak, gurasoak hil ondoren irribarre maltzur hura aurpegian!

Itsasontzi txiki batera eraman gintuzten beste ehunka errefuxiaturekin batera, gehienak umeak. Potoan sartutako sardinak ematen genuen, denak han itsatsita eta elkarren gainean. Gau hartan zorte txarra eduki genuen, itsasoa haserre zegoela ematen zuen eta hantxe eraman gintuen guztiok. Besterik ezin dut esan, ohe batean esnatu nintzelako ondoren. Lehendabizi esan nuena gogoan dut oraindik ere: “Nabiha, non dago Nabiha?”. Segituan jaso nuen berria, nire bihotz erdia itsasorak eraman zuen.

Orain denetarik dut, Apple markako ordenagailua, mugikorra, tableta, lanpostua, etxea... eta gainera paradisuan bizi naiz. Ez dut bete, ordea, amak esandakoa, ez dut ilusiorik; galdu egin dut. Izan ere, ez dut behar-beharrezkoa dudan nire bihotz erdi hori, jaikitzerakoan gauza txarrak ahazten laguntzen eta eguna alaitzen zidan bihotz hori. Itxuraz ongi nagoela ematen duen arren, gaixotasun moduko bat dut, noraezean nabil galdurik; bizitzeko beharrezkoa nuen bihotz erdia joan egin baitzitaidan.

SLAMINO
Mahalia Resampa
Ziburu

Duela 30 urte nini bat sortu zen. Adama, Afrikan bizi zen, bere familiarekin. Ez zen batere diruduna, ez zen eskolara joaten, bere egunak pasatzen zituen lurra lantzen eta gauak zebuak zaintzen... Noiz lo egiten zuen ? Ez dakigu.

Gau batez, zebuak kontatzen eta bat falta zela ohartu zen. Ez zen zebuarengana joan, oroitu baitzen eguerditan jan zutela. 10 minuturen buruan izugarrizko harrabots bat entzun zuen, eta joan zen ikustera eta izugarrizko baobab bat ikusi zuen lurrean eta munstro bat gibelean. Azken honek kolore anitz zituen, Adamak beldurrik gabe galde-tu zion:

—Zuk erorarazi duzu baobab hau ?

—Nor zara ?

—Slamino, eta ez zaitut janen, ez dut maite haragia, gose zara ?

—Bai.

—Zatoz ene etxera jateko.

—Ados.

Slaminoren etxean sartu zirelarik, Slaminok Adama hartu eta pertz batean ezarri zuen. Adamak galdetu zion:

—Zer egiten duzu ?

—Sutan jartzen zaitut gero zu jateko.

—Erran zenidan ez zenuela haragirik jaten
!!!!!!!

—Ez da munstro handi bat sinetsi behar.

Eta Slaminok utzi zuen Adama suaren gainean, Adama ezin zen atera, orduan hil zen 10 minutu-
ren buruan eta Slaminok pozik Adama jan zuen.

Adamaren familiak ez zuen sekula berriz ikusi Adama, eta Slamino 4 urte pasa eta gero hil zen, arbola baten adarra bihotzean hartu zuelako. Arbola hau zen Adamak gehien maite zuen arbola, baobaba...

KLABE EZKUTUA

Olatz Senar Usandizaga

Irun

Kaka zaharra. Ezin nuen ulertu herriz aldatzen hasi eta zergatik joan behar genuen beste puntaraino. Alazne Intxausti naiz, hamahiru urte ditut, eta horiexek izan ziren autoan sartuta egin nituen gogoetak. Zergatik? Ba, konturatuko zinetenez, herriz aldatu berri nintzen, eta, horrekin batera, eskolaz. Eta zortzi urtetan egindako lagun guztiak galdu nituen, Barakaldotik Lasarteraino etorri behar izan nintzelako. Nire harridurarako, nire ahizpa Eiderrek, bidaiatzea gorroto duenak, ez zuen oztopo bakar bat ere jarri. Nik ordea, ahal nuen guztia egin nuen joan behar ez izateko, baina ez zuen ezertarako balio izan.

—Ikusiko duzu, Alazne, lehenengo egunean lagun pila izango dituzu!— animatu ninduen aitak, baina berak ulertzen ez zuena zera zen, hamahiru urterekin, ez zela hain erraza lagunak egitea.

Hurrengo egunean han nengoen, Usurbilgo ikastolaren ate parean. Ostirala, lehenengo eguna. Arnasa sakon hartu eta sartzera nindoanean...

—Kaixo! —entzun nuen nire atzean— Galdera bat, ba al dakizu 2.B gela non dagoen? Ez naiz hemengoa eta galduta nago...

Momentu horretan mutil bat ikusi nuen. Nire adina izateko itxura zuen. Ile marroi motza zuen, baita liluratu ninduten begi urdin-urdinak ere.

—Ba ez, sentitzen dut, ni ere berria naiz hemen —erantzun nion—. Eta 2.B bilatu behar dut nik ere.

—Orduan, kurtso honetan gela berdinean egongo gara. Eki naiz.

—Ba bai, eta ni Alazne. Goazen klasearen bila, hortaz.

Txirrinak jotzerako klasea aurkituta genuen. Sartu ginenean hiru multzo eginak zeuden: albo batean, mutilei begira, neskak zeuden; beste puntan, mutil batzuk erdi borrokan; eta, arbelaren ondoan, neska eta mutil batzuek osatutako multzo bat, lasai-lasai hitz egiten. Izkina batean beste mutil bat ere bazegoen, bakarrik. Eki eta ni mutil horren ondoan eseri ginen. Horrela pasa ziren bost, hamar, hogei minutu, eta gure irakaslea etorri gabe.

—Berriak zarete, ezta? Ni Gorka naiz.

—Bai, ni Alazne naiz eta bera Eki —esan nion—, eta hemen beti horrela egoten zarete? Esan nahi dut, irakaslerik gabe?

—Ez, ez, gaur ez dakit zergatik ez den inor etorri gure gelako aurkezpenera.

Hau esan eta irakaslearen mahaia izango zenera hurbildu ginen. Han inork ikusi ez zuen ohar bat zegoen, hau jartzen zuena:

—Zer esan nahi dute zenbaki hauek?—, Ekik hirurok pentsatzen genuena esan zuen. Gorka zenbaki horiek bere koadernoan kopiatzen hasi zen, ziztu bizian. Handik gutxira, gurea ez zen irakasle bat sartu zen gelara, eta bakoitzaren eserlekuak azaldu eta materiala eman zigun. Hirurok ezin genuen beste ezertan pentsatu: zer esan nahiko zuen klabe horrek? Ordu bat eta erdi egon ginen gelan, eta atera ginenean, batak besteari gure telefonoak eman genizkion.

—Gauza bat, gaur mendiko etxe batera noa asteburua pasatzera, hemendik ez oso urruti. Deiak eta mezuak ezin ditut gaueko hamarrak baino beranduago jaso, zerbait esan behar badidazue, ordu hori baino lehen mesedez.

Etxera abiatu ginen. Nola ez, Gorkak eraman zuen klabea eta zentzua ikusten saiatuko zela ziurtatu zigun. Etxera iristean gurasoak eta ahizpa maletak egiten ari ziren.

—Alazne, mugi, bi ordu barru alde egin behar dugu afaltzerako han egoteko.

—Banoa, ama, banoa.

Bi ordu geroago autoan sartuta ginen. Abiatu ginenean, Gorkaren mezu bat iritsi zitzaidan mugikorrera: “Badakit erantzuna. Plazan gaueko hama-bietan”. Beste zerbait kontatzeko eskatu nion, baina ez zidan erantzun. Hortaz, geratu zitzaidan aukera bakarra gauera arte itxarotea zen. Mendiko etxera iritsi ginenean, landarez betetako etxe

zahar bat ikusi genuen. Orain ez zegoen oso zaindua, baina bistakoa zen garai batean txukuna egona zela. Sartu ginen, eta ematen genuen pauso bakoitzeko, soinu bat entzuten zen gure oinen azpian, lurra beherantz erortzeko puntuan egongo balitz bezala.

—Ama eta ni beheko gelan jarriko gara; Eider, zu gure ondoko gelan, eta Alazne, goikoan jarri zaitez —horrela antolatu gintuen aitak—. Ordu erdi barru jantokian, maletak desegin eta gero.

Gelan sartu bezain laster poztu nintzen aitaren banaketarengatik. Gauez soinurik egin gabe ibiltzea ezinezkoa zen, baina lurra zapaldu gabe ateraz gero... Nire leihoaren ondoan zuhaitz eder bat zegoen, nik kontuz jaitsi nezakeena.

Berak esandako orduan hasi ginen afaltzen laurok. Azkar jaten saiatu nintzen, bilerara joan baino lehen lo apur bat egin ahal izateko.

23:30 ziren. Joateko ordua. Ekarri nuen berokirik lodiena hartuta zuhaitza jaisten hasi nintzen. Iristean, silueta bat ikusi nuen plazako lurrean eserita, izarrei begira. Eki zen. Isilik hurbildu nintzen eta eskuak begietan jarri nizkion ezer esan gabe.

—Kaixo, Alazne —esan zidan orduan—. Esku hotzak dituzu.

Bere ondoan eseri nintzen, izarrak ikusten. Eskuak hartu zizkidan. Bereak nahiko beroak zuden, nireak aldiz, dardaraka.

—Hau hotza, Gorka azkar etortzea espero dut, bestela hemen bertan izoztuko gara-esan nuen, eta, nire hitzak entzun balitu bezala, hantxe azaldu zen.

—Barkatu atzerapena, ezin izan dut lehenago etorri.

—Tira, ez du axola, esplikatu zer esan nahi duten zenbakiak —presa sartu zion Ekik—. Ez dut gurasoek ni harrapatzerik nahi.

—Bai, lasai. Badakizue euskaraz erabiltzen diren letrak hogeita bi direla, ezta? Orduan, letra horietako bakoitzari ordenaren araberako zenbaki bat jarritz-berak koadernoan zuena erakutsi zigun—, horrela geratzen da:

a=1 b=2 d=3 e=4 f=5 g=6 h=7 i=8 j=9
k=10 l=11 m=12 n=13 ñ=14 o=15 p=16
r=17 s=18 t=19 u=20 x=21 z=22

—Orduan, guk topatutako zenbakiak zera zioten...

—Usurbil 36 —aurreratu nintzen—. Etxe hori non dago?

—Kanpoaldean. Pentsatu dut astelehenean eskola eta gero joatea— proposatu zigun Gorkak—. Zer iruditzen?

—Nigatik oso ondo, baina orain ezin dut berriketan geratu. Astelehen arte orduan.

Denok agurtu genuen elkar eta bakoitza bere etxera abiatu ginen.

Astelehena. Irakaslea klasera etorri zen, eta ostiralean ez etortzeagatik barkamena eskatu bezain laster hasi ginen. Zorionez, eguna inoiz baino azkarrago pasatzen ari zen irudipena nuen. Saioen amaieran, patioan elkartu ginen hirurok, etxe har-

tara joateko prest. Lehenengo, malda nahiko handi bat igo genuen, gero gaztainondo erraldoi bat atzean utzi, eta azkenik, etxea ikusi genuen. Atea jo eta gero, eta inork erantzuten ez zuela ikustean, etxeari buelta ematea erabaki genuen. Lorategi txiki eta polit batek inguratzen zuen abandonatu itxurako etxe hori. Irekitako leiho bat topatzean, nola sartuko ginen pentsatzen hasi ginen, eta emaitza hau izan zen: lehena Eki sartuko zen, gero ni, eta azkenik Gorka. Ekik ez zuen arazorik izan sartzeko, bera argala eta arina baitzen. Nire txanda zen. Eki barrurago sartu zen ni igo baino lehen, tokia uzteko. Gorka berriz, etxeari buelta ematera joan zen soinu bat entzun zuela esanez.

—Lasai, Alazne, orain nator bueltan, ez dut denbora asko pasako.

Gutxien espero nuen momentuan pertsona bat atera zen ezerezetik.

—Kaixo, neska. Alazne zara, ezta?²— esan zuen emakume batek eta, leihora igotzen saiatu orduko, besotik heldu ninduen. Ez nuen oihu egiteko indarrik izan pistola batekin nigana apuntatu zuenean.

—Azkenean ez zen ezer entzundako soinua, lasai igo zaitezke... —buelatu zen Gorka eta hitzik gabe geratu zen nire egoera ikusi zuenean.

—Hara, zu ere hemen? Ikusten dut nire kodeak jakin-mina sortu dizuela— barre egin zuen—. Etorri zu ere hona, azkar.

—Zer gertatzen da, zergatik ez zarete etxera igotzen?— Ekiri ia begiak atera zitzaizkion gu ikustean.—Zertara dator hau?

—Begira, falta zen lotsagabea. Etorri zu ere nirekin, mutiko.

—Zer nahi duzu? Zergatik dituzu nire lagunak?

—Eta zuri zer axola dizu? —Eki korrika atera zen etxe barrurantz, ihes—. Lasai egin korrika, ez zara salbatuko! Tira, orain zuekin zer egin pentsatu beharko dut. Zertan zarete onak?

—Zuretzat ezertan ere ez— esan nion nik, aurka egingez. Gorkak begia keinatu eta esan zuen:

—Nola ezetz? Zure txokolatea mundiala da eta!

—Beno, oraingoz, ni beste mukizu horren bila noa. Zuek txokolatea egin —korrika atera zen Ekiren bila—.

—Zer arraiogatik esan duzu txokolatea egiten dakidala!? —sukaldean nengoen Gorkarekin—. Ez dut eta nire bizitzan gozorik prestatu!!

—Zu egon lasai, horretaz ni arduratuko naiz. Plana prestatu behar dugu: hemendik atera, herri-
ra joan eta poliziarari abisatu, ados?

—Bale, eta nola egingo dugu?

—Ea ba. Ikusi dut emakumea apur bat herrena dela ezkerreko hankatik. Orduan, eskuinean zango traba jarrita, zailagoa izango du altxatzea. Kontua da pistola kentzea. Baina horretarako ere bururatu zait zerbait...

—Zer da? Jakin nahi dut!

—Barkatu, Alazne, baina esaten badizut, ez didazu utziko. Oraingoz esan dezakedan bakarra da bueltatuko naizela eta Eki ere ondo dagoela. Nik “korri!” oihukatzean zu ziztu bizian atera atzeko atetik. Bai?

—Ongi da, baina zauri txiki batekin bazatozte bueltan, ez diot neure buruari barkatuko— gogoz besarkatu nuen—. Kontuz ibili mesedez.

—Nigatik ez arduratu —lasaitu ninduen—. Zuk pentsatu nola egin txokolatea.

Horrela joan zen, ezer gehiago esan gabe. Pentsatzen jarri nintzen: orain nola egingo nuen txokolatea? Osagaiak zeintzuk izan zitezkeen pentsatu nuen.

1.-Txokolate hautsa

2.-Azukrea

3.-Esnea

Eta hor geratu nintzen. Zer gehiago jarri nezakeen? Osagaiak bilatu eta egiten hasi nintzen nire estiloan:

1.-Txokolate hautsa esne beroari bota.

2.-Probatu eta konturatu azukre gehiago ez duela behar.

—Alazne korri!!!!— entzun nuen bat-batean. Ezer esan gabe atera nintzen atzeko atetik Gorkarekin topatu arte.

—Non dago Eki?

—Zorionez herrira iristea lortu duela entzun dut.

—Eskerrak! Orain poliziarengana, ezta?

Azkenean, haurren joko bezala hasi zena misterio arriskutsu bihurtu zen. Eki polizia komisarian topatu genuenean, besoa zaurituta zeukan, benda batekin jarrita. Kontatu zigun nola lortu zuen ihes egitea atea egur zati batez trabatuta. Eta orain polizia emakumearen etxera zihoala atxilotzera.

Dena argituta genuela, gure etxeetara abiatu ginen, baina bidean duda bat sortu zitzaidan. Berandu zen, ordea, eta etxera joan nintzen lagunak agurtuz. Ezin izan nuen galdera hori burutik kendu afaldu bitartean. Azkenean, Ekiri mezu bat bidali nion plazan gaueko hamabietan geratzeko proposamenarekin.

Aurreko egunean bezala, zuhaitza erabiliz jaitsi nintzen eta plazara iristean benetako hotza egiten zuela ohartu nintzen.

—Zertarako geratu gara hemen berriro?

—Begira, galdera bat daukat eta ezin izan dut beste ezertan pentsatu. Horregatik, zuri kontatzea pentsatu dut.

—Bale, eta Gorka? Ez al da berriro berandu ibiliko!

—Ez, berak ez du inora joan behar.

—Niri bakarrik deitu didazu? —urduri jarri zen—. Beno, ongi da, nik ere beste galdera bat dut zuretzat. Baina lehenengo zu.

—Hor doa hortaz: emakumea erdi eroa zegoela ikusten zen, zergatik jarri zuen kodea ikastolan, eta nola zekien gu etorriko ginela?

—Aizu, horrek ez du balio, galdera bat baino gehiago egin duzu. Hala ere, ez dakit, gu zelatazen egongo zen?

—Seguruenik— erantzun nuen.

—Beno, nire galdera: egia ala erronka?

—Hori tranpa da, bata edo bestea aukeratu, beste zerbait gehiago egin beharko dut!— protestatu nuen jolasa zela jabetzean.

—Bai, baina zuk ere bi galdera egin dizkidazu— irribarre bat atera zitzaion Ekiri—. Jada aukeratu duzu?

—Tira, bale, erronka aukeratzen dut.

Zalantza apur bat egin ondoren, erabaki zuen nire erronka.

—Hau da: gertuen duzun pertsonari musu bat eman behar diozu— esan zuen apur bat gorrituta.

—A zer aurpegia duzun— hala ere, probak barregura eman zidan.

—Erronka da, egin behar duzu— ez neukala beste irtenbiderik konturatu nintzen—. Bestela egin beharrekoa bikoiztu egiten da, zuk aukeratu.

Onartu behar dut gogo bizia nuela Ekiri musu bat emateko, baina lotsa ematen zidan. Gainera, ez nuen asko ezagutzen eta horrek segurtasun eza sortzen zidan. Nire pentsamenduetan murgilduta, plazako lur hotzean etzan nintzen. Biotako inork ez genuen ezer esan, eta egun horietan gertatu zena pentsatzen hastean hasperen bat bota nuen. Gero, berriro zutik nengoenean, inoiz baino urdinagoak iruditu zitzaizkidan bere begiak.

—Nahi baduzu, ez duzu zertan egin...— bota zuen azkenean. Niretzat hitz horiek aski izan ziren zer egin erabakitzeko. Bere aurrean jarri nintzen eta musu eman nion. Geratu zitzaion aurpegia oso barregarria zen, eta ni barre algaraka hastea eragin zuen.

—Zeri egiten diozu barre?— bera ere barrez hasi zen.

—Ikusi behar zenuen zer aurpegirekin geratu zaren!

—Bai, imajinatzen dut. Inozo aurpegia geratu zait, ezta?

—Bai. Hitz hori da aurpegi hori zehazki deskribatzen duena.

—Beno, etxera joan beharko genuke. Gurasoek harrapatzea okerrago da.

—Bai, arrazoi duzu.

—Bihar arte, orduan.

—Agur, bai.

Biok agurtzean, bakoitza gure etxera joan ginen.

Hurrengo goizean, egunkarian lehen orrian agertzen zen gure gertakizuna: “Usurbilgo kanpoaldean umeek deskubritutako ustekabea”. Aitak esan zidanez, ume batzuek (berak ez zekien gu ginela) poliziarri emakume arriskutsu baten berri eman zioten. Etxera sartzean inor ez zegoela jartzten zuen. Gehien harritu ninduen hau zen: etxe-ko jabea urrun joan ez zen proba nire txokolatea zen! Beno, ez dakit txokolate ere deitu daitekeen. Garrantzitsuena iritsi zirenean oraindik nahiko beroa zegoela zen eta horregatik etxe inguruan miatuta emakumea harrapatu eta atxilotu zutela.

Poliziak oraindik ez zekiena oharrarena zen, baina ez genuen presarik hori argitzeko.

ZURE BEHARRA

Izar Arronategi Mugeta

Gernika

Barneko sentimenduen kutxa zabaltzeko grina,
giltza batek soilik ireki dezakeena
zure begiradaren beharra horretarako,
baina ezin hori lortu.

Zer dela eta, ezin azaleratu nire sentimenduak?
zureganako sentimenduak,
barnean ditudan oroitzapenak,
momentu liluragarriak datozkit burura
zure falta sumatzen dudanean.

Nire ondoan behar zaitut berriz ere,
sentimendu horiek ni ez itozteko.

Zure laztanak, begiradak, ...
mesede egiten dit neure burua ez amiltzeko.

Zure maitasunaren premia dut,
soilik sentimenduen kutxa irekitzeko.

ITSASOA

Libe Gargallo Eizagirre
Oiartzun

Txikitatik ezagutzen dugu elkar,
eta lehenengo egunetik lagunak izan gara.
Bera gerturatu zen nire oinetara,
eta kili-kili egin zidan,
barrez hasi nintzen.
Gerturatu nintzen
eta aparrez betetako olatu batek aurpegia zipriz-
tindu zidan;
zapore berria,
baina gustagarria izan zen
eta berehala jolasean hasi ginen.

Orain handia naiz,
baina itsasoa lehen bezainbeste maite dut
Itsasertzetik oinutsik ibiltzea gustuko dut,
kresalaren usaina sentituz..

Itsasoak lasaitasuna ekartzen dit burura;
olatuen hotsak,
haizearen hotsak,
zipriztinak gora eta zipriztinak behera.

Bere gainean jartzean,
besarkatzen nauela sentitzen dut.
Gustura nago.
Gainean etzan, kulunkatu eta amets egiten dut.

Txikitako oroitzapenak ekartzen dizkit burura:
hondarrezko gaztelua egin
eta urak dena suntsitzen zuenean,
txirlak bilatzen ibiltzen ginenean,
zulo erraldoiak egiten genituenean...

Halako batean, zerua hodei grisez betetzen da;
ekaitza, haizea, zurrunbiloak eta iluntasuna.
Bere aurpegi itsusiena erakusten du,
geldiezina da.
Non dago itsasoaren goxotasuna?
Non dago itsasoaren lasaitasuna?
Horrelakoetan
bakean utzi behar zaio.

DIRUDIENEZ

Asier Morillo Alberdi

Azpeitia

Dirudienez

Bertsotan aritzen gara bageneki bezala

Dirudienez

Gitarra zaharraren doinuak hunkitu beharko gintuzke

Dirudienez

Bizitzak oroitzapenaren bideak argitu behar lizkiguke

Dirudienez

Gaztea sentitzea ohore handi bat izan beharko luke
...enez

Txolarre saltari baten moduan bizi

Katuen bizitasunaz

Firin-faran

Haizearen...

Dirudienez

Negar egin eta begiak igurtzi beharko genituzke

Dirudienez

Zaharra izatea ez litzateke zilegi

Diru...
di...
...en
...EZ!

MUXU GAZIAK

Elene Etxaniz Uribe

Ondarroa

Garaipenik ez da galtzekorik gabe.

Esperantzara kondenatua.

GARI

TIK TAK TIK TAK

Sakon hartu arnasa

Gai honetaz mintzatzea

Ez baita erraza.

Kromosomatxu batek

Hain txikia izanik.

Nigan agintzen du

Jaio nintzenetik

PLISTI PLASTA PLISTI PLASTA

Kresala itsasoan

Hola dager gatza

Nire organismoan.

Gaziak diren arren
Izerdi eta malkoak
Nik gehitu behar dizkiet
Baita ere muxuak

TIK TAK TIK TOK

Iratzargailua
Haur inozentziatik
Esnatu nauen mamua.

Birikiak ditudan arren
behar dut haientzat
airea emango dien
hauspoen laguntza.

TXIO TXIO TXIO TXIO

Txoritxoa banintz
Goizetik gauera
Jan behar dut anitz

Gibelak didan arren
Behazuna ekoizten
Entzimak laguntzen die
Janaria xehatzen.

OSPA OSPA OSPA OSPA

Alde ezazue nigandik
Bakterioak itsatsi zaizkit
Ezin naiz libratu haiengandik.

Armada zuria dudan arren
Gau eta egun zaindari
Kanpoko soldaduak behar ditut
Aurre egiteko arerioari.

DANBA DANBA DANBA DANBA
Bihotzaren taupadak
Arinka arinka egitean
Ahantzi ez ditzadan mugak.

Gurutzetako ospitaleko
Medikuaren hitzek
Sendatuko naute
eta atzera egingo du gaitzak.

AUPA AUPA AURRERA IRMO
Etorkizunera
Oztopoak gaindituz
Bagoaz aurrera.

Gaitz honek didan arren
Lan asko ematen
Hemen nago ni gaur
Olerki hau idazten.

MUAK MUAK MUAK MUAK
Maitasun keinuak
Zuk, zuk, zuk eta zuk
Emandako muxuak.

Gatzak gordetzen duelako
fresko itxaropen hazia
zabal ditzagun munduan
NIRE MUXU GAZIAK

На Лубянке (LUBIANKAN)

Peru Amorrortu Barrenetxea

Gazteiz

Negarrak. Aieneak. Garrasiak.

Soinu lazgarriak iristen dira zure belarrietara. Entzuten dituzu? Alboko geletan dauden pertsonenak dira. Kolpeek, ukabilek, ostikoeak osatutako perkusio bortitzak eragindako min oihuak. Hezur hausturek eta kalanbreen ondoriozko erredurek sortutako garrasi latzak. Dardarka zaude. Ez saiatu kontrakorik adierazten, urrunetik barrundatzen zaizu. Beldur zara, laster abesbatza makabro horren parte izateko beldur. Hortz dardartien kriskitinak, zartailuak airea urratzen. Ez duzu ikusten. Zure begien aurrean, iluntasun amaigabea. Goialdetik datorkizun arraitasun apala besterik ez duzu nabaritzen, apika. Zure sudur barneko glandula pituitarioaren bitartez, harategi eta kirofanonek duten odol garbitu berriaren usaina besterik ez duzu atzematen. Nire ahotsa da belarrietatik sartzen zaizun soinu artikulatu bakarra, animalia zaurituen eztarrietatik atereak diruditen garrasien soinu bandari gailentzen zaio, ganibeta hotz bat bezala zure tinpanoa, ointokia, mailua eta ingudea

erdibitzen ditu gupidagabeki zure garunera iritsi arte. Zorionez zuretzat, burua inguratuz begi-belarriak estaltzen dizkizun trapuak inguruko soinuak apaltzen ditu. Zorionez, diot, honezkero erotuta egongo baitzinateke izugarrikeriaren handitasuna hautemango bazenu. Ez zaude prest zure patu ilunari aurre egiteko. Ez oraindik, bederen. Sekula santan negar malkorik isuri ez duten gizonkoteak amatxori deika oihu batean, zigorrak bizkarrean eragindako ezin konta ahala zaurietatik isurtzen zaien odolarekin batera bizitzak ere ihes egingen diela sentituz. 10 gizonen artean bortxatutako gizon-emakumeak barrenak urratzen dizkietela sentiturik mesedez arren faborez jainkoarren geldi daitezela erregutzen dutenak. Min jasangaitza sentitu gabe giharrik mugitu ezinik gupida eske dagoen dohakabea, egunak baitaramatza jarrera antinaturalean kako batetik zintzilik, urik edo janaririk jasotzeke, gorputuz doan gorputza. Sufrikarioen sinfonia luzea da, eta oraindik lehenengo konpasean zaude. Etsi gaiztoaren abanikoa oso zabala da, gizakien aieruen ñabardurak, amaigabeak. Laster konturatuko zara horretaz. Ez dakit zer egin duzun, zein den zure hobena. Baina hori ez zait axola, eta zuri ere ez litzaizuke inporta beharko. Kontua da nire eskuetara iritsi zarela. Eta gai naiz zure beldurra hautemateko. Beldurra usaindu egingen da, goizero gure usain naturala mozorrotzeko gure buruari botatzen diogun perfumea bezala. Gizakion eboluzioak (edo endekatzeak) lo sakonean ezarritako gaitasuna, usaimena, kitzikadura ego-

kia besterik ez duena behar azaleratzeko. Beldur zara. Urdailean jaiotako izua zure gorputz osoan zehar zabaltzen da orain, metakarpoen puntetara iristen da gorputz adarrak zeharkatuz ondoren metatartsoetara jauzi egiteko, astiro baina hatsa hartzeko gelditu gabe, marabunta geldiezina nola, beldurrak ez baitu arnasten, ez baita biziduna bizia balu bezala jokatzeko badu ere, haziz, ugalduz, biderkatuz doa, zure ezinegonaren pentzutan, eztarria hertsatzen dizu arnasa galaraziz, hiperbentilatze gogo duzu ahalik eta oxigeno gehien zeureganatu eta bertan ez itotzeko, baina zenbat eta gehiago saiatu aire gehiagok ihes egiten dizu eta ez zara ezpainen artetik ihes egiten dizun karbono gas bitalarekin ordezkatzeko gai, eta bitartean izu laborriak ez dio hazteari utzi: prozesu erretrorikatzailerik bati jarraiki, defentsa mekanismoa izan behar zuena zure kontra irauli da eta etsaiari bidea egin dio zu behin betiko akabatzeke, orain burmuineraino iritsi da, munstroaren sorburu baina bere besarkada hotzean jausten azkena, eta pentsamendu logiko oro fagozitu du. Sinapsia etenda, orain instintuek gobernatu piztia besterik ez zara, bizirauteagatik auskan, arriskuarengandik aldentzeko irrika bizian, baina oraindik ez dakizu arriskua non den ezta zerk mehatxatzen zaituen ere, haur jaioberria bezain kaltebera eta zaurigarri. Instintuak bultzaturik, instant batean ehunka milaka urte egin dituzu atzera. Aspaldi arpeetan zehar zebiltzan gure asaba *homoen* parekide bihurtu zara. Zure azkazal ahulak eta beso-hankak, beste ezer ez

duzu zure arrastean dabilzan harrapariei aurre egiteko. Ia deus. Eta zerbait zuri so egiten dagoela nabaritzen duzu, zure zintzurrera salto egin eta bertan jo eta akabatzeko, ondoren zure haragia jan eta zure odolaz bere egarria asetzeko. Ez zabilta oker. Ni naiz zure sen atabikoak atzeman duen harrapari hori. Eta prest nago zu larrutzeko.

Pausoak. Danbatekoa. Aginduak.

Oinatzen zarata burdinkarak durundi ahula egiten du lozazko zoru eta hormetan. Bi gizonak ordura arte bakarrik egondako sotoan hirugarren bat sartu da. Ikusteko ezintasuna duena erabat ezustean harrapatu du sarkinaren etorrerak. Berehalako erasoari aurre egiteko prest, ez daki zer ekarriko dion bisitari misteriotsuak. Haren pausoak sendoak eta ziurrak dira, agintzera ohituta dagoenarenak. Durundika mintzatu zaio bere menekoa bide denari, eta, hasieran, itsu tenporalak errieta egiten ari zaiola pentsatu du, horrenbeste itzulinguru behingoz albo batera utzi eta metodo zuzenenera jo dezan. Baina laster konturatu da ez direla errutinazko galdera ohikoak besterik. Horrenbesteko usantza du aginduak emateko, non tonu zakar eta gaztigatzaile hori bere ahotsarekin mimetizatu baita, biak banaezin bihurtzeraino, edo, hobeto esan, pertsonak jokaten zuen rola pertsona bera ordezkatu duen arte. Besteak tonu apalean erantzun dio, baina ez zapalduko mirabearen apaltasunaz, egoera kontrolpean daukanaren hoztasun narez baizik. Badakiela hor gauzak nola egiten diren, diotso.

Nolakoak diren imajinatzen saiatu da. Imajinazio bizia izan du beti, eta gorputza loturik eta preso edukita ere, irudimena beti da aske, sarritan guk mugak jarri nahi izaten badizkiogu ere. Baina gure ameskeriek ez dute muga moral edo zirkunstantzialik onartzen, eta lurbira osoko kartzela ospeleneko ziega ilunenean egonagatik, izuari gain hartu dio jakin-minak. Aginduzalea burusoila irudikatu du, ez berez hala delako, bere buruari aire are kastrenseagoa emateko ile guztiak erabat inarrosi dituelako baizik. Bibotea dauka, urria eta txikitxo, haren gizontasun zaurituak kontrakoa desiratzen badu ere gehiago hazten ez zaiona. Bota beltz iltzeztatuak, uniforme soila, berdin dio zein koloretakoa, kontua iluna izatea da, horko langileengan horren ohikoak diren orbanak ekiditeko. Bere aurrean eserita dagoena irudikatzen saiatu da, baina soslai lauso bat besterik ez datorkio burura. Hau ere kolore iluneko arrokekin joango da, eta ilea erabat arradatua, apika. Baina ezin du bere ahotsaz gidaturik bere irudi zehatzik osatu. Edozein gizonen ahots kordek sortutakoa izan zatekeen ahots hura. Norbaitek bizia kenduko baliagu, gehienok gure hiltzailea pertsona inportantea izatea desiratuko genuke. Azken batean, gurea heriotza anonimoa izango bada, hildako soil bat gorpuen legio batean, behintzat gure hiltzaileak ukan famak aterako gintuzke erabateko anonimatutik, eta gure izena historia liburuetako orrietan aterako litzateke, psikopata baten giza safariko garaikurretako baten moduan soilik izanda ere.

Baina ahots hori berdin izan zatekeen aristokrata batena zein kale izkinako fruta-dendan irribarre batekin bezeroak artatzen dituen saltzailearena. Guztiok daramagu munstroa gure barruan, anatomiako txoko ezkuturen batean gordeta. Abagune egokiaren zain azalera irteteko. Gerra. Traizioa. Iraultza. Kontrairaultza. Kontrairaultzaren kontra-ko kontrairaultza, berkontrairaultza. Edo, besterik gabe, egun aproposa.

Hemen. Izenik ez zuten aipatzen bi gizonek lekuaz hitz egiterakoan. “Hemen”, esaten zuten. Tabua balitz bezala. Izen beldurgarria, ezin aipatuzkoa, gizakume tantaiena dardararaziko lukeena. Orduan etorri zaio burura. Lubianka. Ezin ziur jakin han dagoen, baina milaka mingainek beste horrenbeste aldiz belarri zoliei xuxurla ezkutuan kontatutako istorio beldurgarriak datozkio burura. Ohiko bileretan tertulia kideetako bat manka denean, besteen begirakune hitsari soilik erreparatuta, “Zer jazo zaio?” galdera egin gabe jada erantzunda dagoenean. Lubianka. Infernuko zuloa. Bere aurrean eserita dagoen gizonaren ahotsa imajinatu du, harekin batera inguruko desagerpenen gomuta eta herio zurrumurruek zekarzkion izena esaten. Ez, ezin du jakin non dagoen. Baina ezjakintasuna bera ziurtasuna baino zaurigarriagoa da.

Orduan, urruntzen doan burdin hotsa. Ateak ixtean egin duen danbatekoa. Badoa. Ofizialak alde egin du, jakin mina aseta edo egitera zetorrena burututa. Eta bakarrik utzi du bere borroarekin.

Oihalak tarratatzean sortzen duen zarata. Argi itsugarria. Xuxurla.

Zer moduz zaude? Barkatu suertatu den eten-txoa. Itzul gaitezen gurera. Non geunden? A, bai, zu larrutzeko pronto nengoen. Bai, kliska itzazu begiak, ohi daitezela argira. Edo hobez ez. Ikusiko duzuna ez baitzaizu gustatuko, seguruenik. Begiak distira zaurigarria ohitu zaizkio. Aurrez aurre flexo bat jarri diote, tungstenoa jadanik gori-gori duena eta erretina argitasunez aturatu diona. Mahai baten aurrean eserita dago. Ez dago ezer gainean. Bai. Badago. Bere aurrean, iluntasunetik zuzenean jaioko bailiran, bi esku ageri dira, besoen goialdearekin batera. Ukondoetara heldu baino lehen, gorputz adarrek bonbillak sortutako argitasunetik ihes egin eta belztasunean galtzen dira. Pertsona bat inferitzen du beso horien jabe, baina ezin du ikusi. Argi-ilun kontrastea bortitzegia da, estonagarriegia erretinarentzat. Hiltzaile anonimo baten meneko biktima anonimoa izaten arrai. Besoetan paratu du arreta. Eskumuturretaraino kolore beltzarekiko mahukez estalirik daude. Eskuei so egin die. Esku bortitz eta zakar parearekin topo egingo zuela uste zuen, baina horren orde lehen begiratuan durduzagarriko femeninok irudituko litzaizkiokeen bi esku dakusa. Azkazal ondo zainduak, azal leuna. Horiek dira arimak gorputzetatik erauzten diharduen baten eskuak? Lipar batez, isildu egin da.

Lanpara atzealdeko iluntasunean, ipurtargi batek dirdira egin du gauean. Baina ez da ipurtargi

bat. Tabakoa erretzean jaiotzen den txinparta eza-
gutu du. Oraindik ekoizteke dauden ehunka film
amerikarren estiloari jarraiki, aurpegira bota dio
ke hodeia. Sudurretatik sartu zaio usain nazkaga-
rria. Aulkiak zarata egin du altxatu denean. Tira
ba, ulertuko duzunez, nik ez dut plazerik ukanen
egin behar dizkizudan gauzengatik. Uler ezazu, ez
da ezer pertsonala. Esan beza nahi duena. Berak
badaki erabat pertsonala dela. Sufrimenduak beti
baititu subjektu pasibo bat eta agente eragile bat.
Behinola letretako ikasle fin izandakoaren bristada
horrek aldartea aldatuko ziokeen beste edozein
egoeratan. Baina ez orain. Eskuak mahaiaren izki-
na batean daude orain. Iluntasunetik ukalondoak
agertu dira, eta gorputz baten beheko aldea daku-
sa orain. Hura ere beltzez jantzia. Gerrikoaren
belarri grisak dirdira egin du. Badaki gezurra dela.
Bost axola diola lanbide duen edo ez. Gozatu egin-
go duela eskua gainean jartzen dionetik hasita
amaieraraino. Beste urrats bat eman du. Baina
egon hadi lasai, ez dik asko iraungo. Ez zaik inpor-
ta hika egiten badiat, ezta? Azken finean, elkarren-
gandik oso gertu egongo gaituk... baina ez luzaro-
rako. Lasai, hire gisako dozenaka gizaseme igaro
dituk orain hi eserita hagoen lekutik. Batek ere ez
dizkik lehen lau orduak gainditu. Ez diat uste hi
desberdina izango haizenik. Beste pauso bat. Jada
bere zozkoa ikus daiteke, burua izan ezik. Orain
eitea ikus diezaioke. Begiradak gurutzatu dituzte.
Zerbait nabarmengarria bereizten saiatu da bisaia
horretan, multzoaren anonimotasunetik atera eta

borreroari ezaugarri bereizgarria emango dion trazaren bat. Deus ere ez. Beste inorena izan daitekeen aurpegia da, ez da bereziki maltzurra, ez onbera, ez sadikoa; ez ederra, ez itsusia; ez basatia, ez otzana; ez alaia, ez hitsa; ez oiesa, ez atsegina; ez mardula, ez argala; ez korromioz betea, ez maitabera. Denak, bat bera ere ez, edozer izan liteke hartzen duen keinuaren arabera. Edozeinen aurpegia, berea, auzokoarena, urlia edo berendiarena. Sufriarazten duena, orduan konturatu da, sarri ez baita psikopata. Haren begi beltzek bakarrik merezi dute arreta. Bi puxtarri txiki dirudite bisaia monotonoan, ilargi beltz, herio argi. Haren albotik igaro da, hizketan jarraitzen duelarik. Emadak segundo bat. Ene tresnak hartzeko nahikoa soilik. Hementxe ditiat, beti prest. Deitoragarrienetik ere bada zer ikasia. Zaratak entzun ditu, bilgoren bat desegingo balute bezala. Burdinaren hotsak ebaikiaren gomuta hotza azalerarazi du. Berriro hurbildu dira urratsak. Gainera, ez duk horren txarra izanen... Azken finean, heriotza duk gerta dakiakkeen okerrena.

Zuritasuna. Durundia. Ezintasuna.

Esnatu eta berriro jaiki da bizien mundura, tarte bat konortea galduta egon ostean. Argi itsugarri batek begiak erre dizkio. Ez da ezer ikusteko gai izan teilatuko lanpararen arraitasun itsugarrira ohitu den arte. Lipar batez, esperantza erabat zentzugabea ernatu da bere baitan: dena ametsa izan dela, amesgaiztoa hobeto esanda, baina loaren esparru onirikoaren kaotikora mugatua, irrealia,

gezurrezkoa. “Orain ohean nago”, pentsatu du bere artean, izararik ez baina jantzi zuria gainean badu ere, “ohean. Beste edozein moduko eguna, egun normala, datorkit orain, goizetik arratsera. Gertatu dena ez da benetakoa, dena nire burmuinaren eldarnio lotien fruitu izan da, altxatu eta dena betiko berdina izango da, berdina, berdina...”. Luzaro geratu da ohean botata, berdintasun nahia mantra bat bezala errepikatuz. Luzaro oldoztu du ametsaren aukeraren inguruan. Hareazko gazteluak nola, horrela desegin da tupustean, erre-alitateak deiturik.

Esna al hago? — kasketadun haurraren burugogorkeriaz, ez du onartu nahi gertatu dena aldaezina dela. Ez dio aurpegira begiratu nahi iratzarri nahi duen horri. – Noski esna hagoela. Altxa hadi.

Teilatuko lanpararen dirdaira oztopatzen duen buru bat ageri da bere gainean. Bere betaurrekoen gainetik begiratzen dio sendagile bide denak: bisturia du eskuan, eta bata zuria soinean, lauzekiko gelaren zurtasun itsugarrian mimetizatzen dena. “Odola errazago garbitzeko” igaro zaio burutik. Berrero ere, izu laborriak hartu du. Disekzio eta zatiketen irudiak etorri zaizkio burura. Askatzen saiatu da, baina uhalek lotzen dute ohatilara. Artegasuna nabariturik, medikua tonu neutro, lehor, gatzgabean mintzatu zaio:

Hago lasai. Laster izango haiz libre. Ondo hago. Hiru saihets hautsita, hortzen bat faltan... Aurrera aterako haiz.

Agurtu ere gabe, gizona itxuraz ohatila besteen-gandik banatzen duen errezela zurietako bat pare-tik kenduz aldendu da alboko ohatilara. Bertan, begi ertzetik formagabeko zerbait atzeman du, izara batekin estalia. Izarak firfira leun batez galara-zi dio ikusmena, agonduta dagoena bizirik edo aspaldi joanik dagoen asmatzeke. Doktoreak zer-bait xuxurlatu dio, eta aurrera jarraitu du. Urrunean galdu da haren ibileraren soinua. Galeria luzeren batean daude, antza. Supituki, argiek alde egin dute, eta iluntasunean geratu dira. Arimako ilunpearen ondoren, benetakoa nagusitu zaio.

Handik ordu pare batera esnatu da albokoa. Lanturuka igaro du gau osoa, eta badirudi arnasa harten duen bakoitzean arimaren zati batek alde egiten diola. Geroz eta gehiago kostatzen saio arnastea, odolak birikak hartu dizkio, egiten duen soinu borborkariagatik. Badirudi aiene egiten duen, arnasa egiten duen aldi bakoitza azkena izango dela, baina erabakimen sinestezin batekin atxikitzen zaio bizitzari. Aienea. Arnasa. Aienea. Arnasa. Aienea. Arnasa. Goizaldean hil da, azken hasperen sakonean bizi indar guztia jarri ondoren. Bi uniformedun etorri dira, eta zaku batean sartu dute gorpua. Izarak alboratu dituzte, albokoek ongi ikus dezaten. Ezkerrekoak begiratu egin dio. Begiradari eutsi dio oheratuak. Uniformedunaren niniak agonduarenetik zakura saltoka ibili dira apur batez. Gero, keinu bitxia egin du zakuari begira. “Isiltasunaren ordaina” adierazi nahi balu

bezala. Biek alde egin dute, galeria azkenean isilik eta etzandakoa bere gogoetekin bakarrik utzita. Iluntasunean bakarrik eta etsita, bidegabekeriaren tamainaz jabetu da. Berdin dio, noiz, nork, nola, zer aitzakiaren pean. Ekintza berbera orain gaitzes-ten dutenek, noizbait egin dute, edo egingo dute, eta besteari begiko habea nabarmenarazten diete- nek ez dute eureneko harrizarra ikusten. Esku batekin ezetz esan, eta bestearekin babesgabei gauza bera pairarazten diete. Sufrimenduak ber- din eragiten die izaki guztiei. Guztiak sentitzen dira boteretsu hura erabiliz. Berak ezin izan du jasan. Eta badaki gomuta horrek bizitza osoan jaza- rriko duela.

Eguerdi aldera, aurreko bi uniformedunek aska- tu egin dizkiote uhal beltzak eta lepoa estutzen zion zirgiloa. Baina ez du presio amiñi bat ere desa- gertzen sentitu. Beste zirgilo bat darama, ikusezi- na, baina askoz eramanezinagoa. Hitz egin du, isil- du behar zukeenean. Oihu eta negar egin du, jipoitu dutenean. Ausartek kenduta, denek egiten dute berak egiten duena. Denak gaitzesten dituzte berdin. Eta, egiaren orduan, gutxi batzuk baino ez dira behar bezain ausart izaten. Askotan, ausardia bera ere ez baita nahiko horrelakoetan.

Bulego antzeko batera eraman dute. Mahai bat, koadro bat horman, gizon bat eserita aulkian. Burokratak begiratu hotza zuzendu dio. Zenbaki bat baino ez da beretzat, bere aurretik igarotzen zaizkionetatik bat. Ez zaio axola zer jazo, eta ez du galderarik egingo. Ez daki ezer, eta nahiago du

horrela jarraitu. Horrenbestez, ez du susmorik. Tarteka bulegoraino heltzen diren oihuak ez ditu entzuten. Aurrean eserita dituenen zauriak ez ditu ikusten. Bizitza lasaia daraman burokrata da. Paperetan zigiluak jartzen ditu, orain harenean bezala. Zigilua hartuta, atetik bultza eginez atera dute uniformedunek papera ozta-ozta hel dezakeen gizona. Azken begiratu bat egin dio zigilatzaileari. Buelta emanda dago, eta ziur dago bere aurpegia ahazteko ahaleginak egiten ari direla. Galdetzen diotenean, ezer ez jakiteko. Ahazteko gaitasun natural ikaragarria baitu gizakiak.

Berriro iluntasuna. Begiak itxita, sartu zen bezala atera dute. Behaztopa eginez, kaleketan barna ibili dira, denboraren eta espazioaren zentzua galdu duen arte. Orduan, kolpe ikaragarri bat sentitu du, eta gero ezer ez. Ez ditu urruntzen diren pausoak sentitu, ezta uniformedunetako batek bota dion listukaldi erdeinuz betetakoa sentitu.

Hotza. Gaueko haizearen firfira. Odolaren metal gustua.

Kalean nago. Itxuraz libre, baina betirako preso. Zulo higuin garri horretan esan ditudan gauza guztien mende. Ezin izan dut jasan. Mina, sufrimendua. Latzegia dena. Ez nuen beste aukerarik, dena esatea baino. Haien izena esatea baino... Ez, baina. Baneukan isilik egoteko aukera, bai, baina azken finean gizaki hutsa naiz, inork ere ez du, ezin deza ke izan altzairuzko gorputza eta etengabeko laido eta gutxiespenei nola aurre egin, nola jasan eta ezer ez esan, orain beti izango ditut atzetik beraien

itzalak txerriak odolkitara bezala heriotzara bidali ditudan lagunenak baina pentsa bestela ni egonen nintzateke hila hori ez da aitzakia ordea nire koldarkeriak hobiratu ditu maite nituenak haiekin egin dut aldaketa eta orain beraien gorpuek okupatuko dute nireak bete behar zuen areka eta txakurrek haien haragi izoztuak jango dituzte pixkanaka eta udan euliek haiengan jarriko dituzte euren larba nekrofagoak zortea lagun aldiz norbait aurkitu eta gupidaturik lur emango die baina niri ez zait hori gertatuko modurik gerenenean baitarrait bizirik, hautsitako saihtsen batek birkak edozein momentutan zula badiezazkidake ere eta orduan haien patu berbera ukanen dut kalekka ilun honetan, altxa nadin eta noan aurrera, beraien aurpegiak ikus ditzaket aurrera egiten dudan heinean eta gauerdiko haizeak ahots salatariak dakartza nigana zu izan zara zu zara hiltzaile zu ehorzle oilobusti salataria besteak saldu zure larrua salbatzeko eta arrazoia dute malko zuri hutsa naiz bihotzean tolesak besterik ez dituen dohakabea ni ez dut nora jo eta alderrai nabil herrenka hara hor dago ibaia ospel eta iluna, eta zergatik ez bukatu lehenbailehen, azken batean ez zuen arrazoirik, hobe ezereza, bai, mamuek jazarrita bizitzea baino. Barandaren aurrean nago. Oraindik salbu, baina nahikoa da pauso bat ematea. Hotzak sentsazio guztiak ezabatzen ditu. Ezin dut jasan.

Zalantza. Gauzatu ez den akabera. Ihesi doanaren pauso kordokaria.

Eraikinen itzalek ingerada dardartia irentsi dute. Izarrek dirdaira egiten dute ortzi osoan zehar. Ez dago inor metropoliko kaleetan. Moskova ibaiko ur grisak lasai higitzen dira bere arroan, astiro, gelditzeke. Denbora ere aurrera doa, tantaka, geldiezin. Baliteke ahaztea. Noizbehinka bakarrik gomutatzea sekula oroitu nahiko ez lukeen hura. Baina memoria iturri ezin agortuzkoa da. Agian, egunen batean, harekin topo egingo du. Kaletik gurutzatuko dira. Orain dela urte asko, bizitza eta gorputza suntsitu zizkion tipoa ezagutuko du. Hark ez du bera ezagutuko. Aurrera jarraituko, lepoa tente, ezer txarra egin izanaren kontzientzia faltaz. Edo apika jakingo du. Baina ez dio axola. Berak, aldiz, begiak makurtuko ditu, eta harengandik urrundu-ko da. Urteen joana gorabehera, ziur dago bera dela. Agian bigarrenez lortuko du oroitzapenei ihes egitea. Edo beharbada etxera heldu bezain laster egingo du bere buruaz beste. Leihotik salto egingo kalean jolasean dauden hurrei umezaroa bidegabeki lapurtuz, edo eskumuturretako zainak ebakiz gorrituko du zorua, panpina zintzilikari bihurtuko da. Baina litekeena da egun hori inoiz ez iristea. Askoz lehenago bihurtzea bizitza jasanezin. Bitartean, edonon ikusiko du sadiko haren aurpegia. Harena, eta haren mende zegoela salatu zituen pertsonena. Edozein eitek gogoraraziko dio irribarre oker hura, buru leun eta soildu hura, esku hain zaindu haiek. Nahiz eta harenak ez izan. Borreroak baditu milaka aurpegi.

ZU GABE

Maddi Aiestaran Iparragirre

Beasain

Ordu bat, hogeita sei minutu eta zortzi segundo. Zu gabe. Deseroso. Arraro. Nirea ez den mundu batean egongo banintz bezala. Hiru urteko ume bat supermerkatuan galtzen denean sentitzen den bezala. Zer egin ez dakidala.

Hoztasuna darion gela batean nago, apaindura handirik gabeko gela soil batean. Nire adin bertuko bospasei neska-mutil ditut inguruan. Begietan irakurtzen diet bizi dudan egoera hau ezaguna egiten zaiela oso. Lasai ikusten ditut, neure gainean sentitzen dudan olatu erraldoia menderatu izan balute bezala. Ziurtasun pixka bat transmititzen didate, baina deseroso nago, oso deseroso. Ez dakit non sartu nire esku izerditsuak, bai baitakit horietara begira daudela denak. Eskuineko hankaren dardarizo gogaikarriak ere ez dio onik egiten nire egoera tamalgarriari. Lasai egoten asmatu behar dut, kosta ahala kosta. Hau hasi besterik ez da egin.

Ordu bat, berrogeita bost minutu eta hogeita bi segundo. Zu gabe. Urduri. Ziurtasun egarriz. Jende aurrean biluzik egongo banintz bezala.

“Ni Klaudia naiz”. Nire ahots-kordek egin duten soinu ñimiñoa barregarria iruditu zait. Une batez, gorputzeko muskuluak uzkurtuta ditudala sentitu dut. Baina hizketan jarraitu dut, horren deseroso sentiarazten nauen urduritasunari hortzak erakutsiz. “Gaixo nago, eta sendatu egin nahi dut. Laguntza behar dut”. Bai, onartu egin dut, eta harro nago. Eman dut lehen pausoa. Lortuko dut.

Hiru ordu, hamalau minutu eta hogeita hamazazpi segundo. Zu gabe. Triste. Malenkoniaren zurrunbitotik ateratzeko eskuak astintzen ariko banintz bezala.

Ohean etzanda nago, loak hartzen banau denbora arinago igaroko den esperantzan. Ezin dut, ordea. Begiak itxi, eta zu bakarrik ikusten zaitut. Zure premia dut nire ametsen mundura jauzi egiteko. Inoiz baino gehiago sentitzen dut zure beharra. Ez naiz ezer zu gabe. Zainak hanpatuta nabari ditut, lehertzera balihoaz bezala. Jasangaitza da niretzat itoaldi hau. Behar zaitut!

Sei ordu eta berrogeita zazpi minutu. Zu gabe. Itxaropentsu. Baikortasunaren bandoan. Adikzioaren aurkako borroka amaigabea irabaztera banindoa bezala.

Mantso eta goxo hitz egin dit. Lasaitasun ikaragarria helarazi dit. Berarekin hizketan, une batez, aske sentitu naiz, gure belaunaldiko neskek nozitzen dugun presiotik urruti. Makillajerik gabeko bere azalak distira berezia dauka. Ederki ematen dio denak. Behinola irakurri nuen kanpoaldea barnealdearen ispilu dela; horren lekuko nabarmena

da bera. Liluratuta utzi nau bizitza benetan maitatzeari buruz daukan teoriarekin. Begiak ireki dizkit. Beretik zerbait kutsatu dit, eta horrek aurrera egiteko indarra emango dit.

Hogeita bi ordu eta hamazazpi minutu. Zu gabe. Bakarrik. Hutsik. Nire izatearen habe garrantzitsu bat galdu izan banu bezala.

Izara artetik, goizeroko mugimendu mekanikoa egin dut, baina ez zaitut topatu. Batera eta bestera mugitu ditut hatzak, baina ez zaitut inon sentitu. Halako batean, begiak ireki ditut, eta konturatu naiz gaurkoa ez dela egun normal bat, egun berri bat baizik. Hutsik sentitu naiz, erabat hutsik. Soinurik gabeko garrasi bat atera zait barren-barre-netik, eta aspaldi ez bezala negar egin dut.

Hogeita lau ordu: egun bat. Zu gabe. Kontent. Sinetsi ezinda. Lehen mugarrira iritsi banintz bezala.

Basora etorri gara, udazkenaren edertasunaz gozatzeraz, zugiandik haragoko beste mundu batez jabetzeraz. Joan deneko bi urte hauetan nigandik urrun ibili den askatasuna arnastu dut. Plazer bat izan da. Aspaldiko partez, solasean aritu naiz bide-lagunekin; benetako solasaldia izan da, ez bainaiz une oro zuri adi egon. Nire bizitzako erronkarik handiena izango den honi aurre egiteko gai naizela iruditzen zait, eta kementsu sentitzen naiz.

Hiru egun. Zu gabe. Umezurtz. Hondoa jota. Orain arteko ahalegin guztia pikutara bidaltzeko zorian.

Psikiatrarekin nago. Gaur ez zait aurreko egunean bezain liluragarria iruditzen. Bere hitzak, goxo-

tasunaren goxotasunaz, betegarriak egiten zaizkit. Bizitza ez da arrosa kolorekoa. Ezin dut jasan bere ahots eztea. Ni ez naiz ezitan bizi, arantza artean baizik. Latza da benetan nire egoera. Nahikoa da! Ez ezazu dena horren polit saldu! Benetako garrasi bat bota dut, lotsagabea, nire esku dardartiarekin mahai gaineko traste guztiak lurrera bota ditudan bitartean. Pena aurpegiarekin begiratu dit.

Bost egun. Zu gabe. Lasai. Orekatsu. Astiro-astiro, nire barneko korapiloa askatzeko hariari tiraka ariko banintz bezala.

Andoni hasi da hizketan aurrena, eta ni segidan. Motel hasi naiz, guztia kontatzeko beldurrez bezala, lotsati, baina psikiatraren goxotasunak den-dena kontatzera eraman nau azkenean: lehen aldi hartan zeinen boteretsu sentiarazi ninduzun; popular bihurtzen ninduzulako ustea nuela; amonarekin zenbat eztabaida eta ika-mika izan ditudan zure kontura; hasieran jostailu modura ikusten zintudan arren, pixkana-pixkana, nitaz jabetu zarela; egunaren ordu, minutu eta segundo bakoitza zure menpe egotera eraman nauzula... Hasperen egin dut. Ez dakit zerk, baina nire barnean zerbaitek “klik” egin du. Zerbait aldatu zait. Eta dena patxadaz kontatzeko beharra sentitu dut. Gau hartan, goizaldeko ordu txikitan, logelan sartu zitzaidala ama, eta zurekin jolasean harrapatu ninduela. Ni ez nintzela asko larritu. Bakean uzteko esan niola nire begien norabidea aldatu ere egin gabe, eta nirean jarraitu nuela. Bera, orduan, erabat aztortuta, oihuka hasi zitzaidala: arazo handi bat neuka-

la, bazekiela zu zeundela eskolako emaitzetan izan nuen beherakada nabarmenaren atzean, gaixorik nengoela... Azken hitz horiek jaurtitzearekin batera, nire ezaxolakeria irentsi ezinda, zu nire eskue-tatik askatzea lortu zuela, mugimendu bortitz baten bidez. Eta une hartan, barruan neukan munstroa atera nuela, eta amari besotik heldu eta bultza egin niola. Ez dudala sekula ahaztuko amaren begirada triste bezain etsia. Lurrerantz jaitsi dut nik begirada. Bai, gaizki nago. Sendatu egin behar dut. Eta prest nago. Indartsu. Badut nahikoa kemen zulo honetatik ateratzeko. Ahalegindu egin behar dut. Borrokatu beharra daukat, mereziko du-eta.

Sei egun. Zu gabe. Lasai. Nire buruaren jabe. Amestutako aldaketa benetakoa izango dela sine-tsita. Hatz puntekin zerbait handia hartzeko zorian banengo bezala.

Martxoak 22 ditu gaur. Andrearen urtebetetzea. Eta ni hemen, bakartuta. Zugandik urruti, berari zorion-agur polit bat helarazi ezinik, bere eguna dela lau haizetara zabaldu ezinik. Une batez, han-patuta sentitu ditut berriz ere zainak, su bero-bero bat sumatu dut eztarrian gora, baina berehala itza-larazi dut, egoera kontrolatzea lortu baitut. Laster, zentro honetatik garbi-garbi aterako naiz, eta benetako muxu bat emango diogu Andreak eta biok elkarri, azala azalaren kontra jarrita, batak bestearen usain berezia adituz. Eta horrek zuk eskaini izan didazunak baino askoz gehiago balio-ko du, askoz ere gehiago.

Zazpi egun: aste bat. Zu gabe. Harro. Marka guztiak hautsi izan banitu bezala. Zuri betiko agur esatea lortu izan banu bezala.

Iritsi da eguna. Azken kamiseta hauxe tolestu eta maletan sartu dut. Prest nago. Baietz uste dut. Hasperen egin dut, eta banoa. Aurrean dut atea. Bestaldean egongo dira aita eta ama, nigatik horrenbeste sufritzen ari diren aita eta ama. Bai, barkamena eskatuko diet. Eta amonari ere bai. Baita neure buruari ere, min handia egin diot-eta. Eskua luzatu eta atea ireki dut. Hortxe daude, urduri, alaba berriaren zain. Irri egin diet. Maleta lurrean utzi eta korrika hurreratu natzaie, berrakatzera. Estu eta bero. Merezki duten modura.

Utzi dugu atzean zentroa. Zebra-bidean, pentsamendua irakurri diot amari, lepoa okertu eta erai-kinera begiratu duenean. Duela urte batzuk, bere ametsik arraroenean ere ez zuen horrelako ezer imajinatuko. Nekez pentsatuko zukeen etorkizunetan horrelako zentrorik existituko zenik; are gutxiago, bere alabak horrelako zentro baten beharra izango zuenik.

Autobusean sartu gara ama, aita eta hirurok. Banoa etxera, asteburua pasatzera. Ama eta biok elkarren ondoan eseri gara, eta aita gure pareko eserlekuan doa. Amonatxo sotil bat dago aitaren ondoan. Urteen joana salatzen duten zimurrez jositako bere aurpegiak bakea islatzen du. Lasai dago, jendeari begira, etxerako bidea autobusean egite hutsari probetxua atera nahian bezala. Bion begiradak elkar gurutzatu dira, eta irribarre zabal

bat eskaini dit. Ondoren, magalean daraman poltsara eramane du bere esku dardartia: kafezko gozoki pare bat atera eta bat hartzeko keinua egin dit. Amona Arantxak baserrira joaten nintzenean ematen zizkidan gozoki haietaz gogoratu naiz, nostalgiaz. Hartu egin diot bat, konfiantza osoz, amona Arantxarena izango balitz bezalaxe.

Autobusaren balaztada zakarrak ezustean harraipatu nau. Neska panpoxa bat igo da, entzungailu handi batzuk belarrietan itsatsita dituela. Gidariari begiratu ere ez dio egin, paretik pasatzean; oso kontzentratuta dago, antza, eskuetan daraman gauza horretan. Hil ala biziko zer baitetan dabilela ematen du. Baina ez dut uste hil ala bizikoa izango denik. Edo bai. Beretzat hil ala bizikoa izango da gaur goizean igo duen argazki erakargarriak beste “Atsegin dut” bat lortu duela ikustea edo horren gustuko duen mutilak igo duen *snafari* iruzkin bat egitea. Autobuseko gidariari irribarre batekin “Egun on” esatea baino askoz garrantzitsuagoa da hori beretzat. Ondotxo dakit hori.

“Ane, hurrengo geltokian jaitsi behar dugu”. Anek ez du, ordea, ezertxo ere entzun. Bederatzi bat urte izango ditu. Ez dio pantailari begirik kentzen. Aitari erantzuteko ere ez ditu begiak altxatzen. Ezaguna egiten zait egoera. Lurrera erori zaion jertsez ere ez da ohartu. Gaixoa. Gustura kontatuko nioke niri gertatutakoa. Gustura hitz egingo nioke berak altxortzat daukan horrek eragin dezakeen kalteaz. Gustura esango nioke nondik natorren, zenbat sufritzen ari naizen eta zenbat sufriarazi diodan maite dudana jendeari.

Iritsi gara. Gozokia eman didan amona irribarre goxo batez agurtu, eta eserlekutik altxa naiz. Belarrietan entzungailuak zeramatzan neskak lehen bezain lanpetua jarraitzen du, bere munduan. Aneren atzetik noa. Besotik tiraka darama aitak alaba, pantailari beste edonori baino errespetu handiagoa erakusten dion alaba. Azken eskaile-ra zapaltzerakoan labain egitea izan da Ane bere mugikorrarengandik aldentzeko modu bakarra. Lurretik altxatzen laguntzera hurbildu natzaionean, begietara begiratu dit, eta nik, une horixe baliatu dut hitzekin esatera ausartu ez naizen hori begirada sakon baten bidez adierazteko. Zu gabe askoz askeago biziko dela helarazteko. Zu gabe zorionsua izan daitekeela sinetsarazteko.

BIDE ZUZENETIK OKER

Idoia Granizo Uribarrena

Altsasu

—Aupa, Xabat! Goazen partidu bat jokatzera, taldean bat falta dugu-eta!

Arratsaldeko bostak dira. Klasetik atera gara eta, arratsaldero bezala, mutilek futbolera jolastu nahi dute. Nik ez dut futbola batere gustuko, baina txiki-txikitatik aitarekin ibilia naiz eta klaseko onena omen naiz. Beraz, guztiek nahi naute eurekin, baina nik ez dut inorekin jolastu nahi. Zoritxarrez, inork ez daki hori.

—Benga, txo! Arratsaldea joango zaigu mugitzen ez bazara!

—Ados, ados, banoa...

Eta han hasi gara baloiarekin alde batera eta bestera.

—Xabat, askaria ekarri dizut.

Hortxe ama! Eskerrak behar baino goizago etorri den. Korrika joan naiz harengana. Bai! Txokolatea ekarri dit gaur, asteazkenero legez. Bokata hartu eta bankuan eseri naiz txokolateaz goatzera.

—Baina ez itzazu lagunak bakarrik utzi, segi jolastera –proposatu dit– badakit asko gustatzen zaizula, laztana.

Ez, ez, ez! Ez dut futbolera jolastu nahi, baina ez dut besterik... Azkar helduko dira seiak eta ingelesera joan beharko dut.

—Bai, ama, banoa...

Han abiatu naiz berriro ere, ardiak bezala, baloiaren atzetik korrika egitera. Ordu laurdena geratzen da ingelesa has dadin, baina ingelesa ere ez dut gustuko. Gurasoek diotenez, gaur egun, hain beharrezkoa da ingelesa gure etorkizunerako, non jakitea ia-ia derrigorrezko bilakatu den. Eta zer erremedio! Astelehen, asteazken eta ostiraletan seietatik zazpietara, ingelesa.

Nik dantza ikasi nahi nuen. Ingeleseko akademiara eta futbolera apuntatu ninduten bezala, balleteko akademiara apuntatzea eskatu nien gurasoei.

—Baina nola egingo du zu bezalako mutil batek dantza? –horra hor aitaren erantzuna.

—Baina aita...

—Ez, Xabat, bainak baratzean. Zuk futbola gustuko duzu, ezta? Bada, futbolarekin nahikoa daukazu.

Ea nor ausartzen zen aitari futbola gorroto nuela esatera. Azken finean, bi urte nituenetik ondo jokatzen ikas nezan atzetik ibili zait. Eta lortu du, izugarri ondo jokatzen dut futbolera, baina nik ez dut kirol hori maitatzen! Berak bai, nik, ordea, ez!

—Hurrengo Messia izango zara, maitea, ikusiko duzu. Jendeak ere badio primeran moldatzen zarelazelaian.

—Baina nik dantza egin nahi dut, horretan eman nahiko nuke bizitza, aita.

—Dantzatzen? Baina zer diozu seme? Erotu egin al zara?

Messirena gutxi balitz, aitik dioenez, munduko mutilik argiena naiz eta ingeniarietza ikasi behar dut familiako enpresa aurrera ateratzeko. Aitonak eraiki zuen, aitik darama orain eta nire etorkizuneko lanpostua izango da.

—Hello, Xabat, how are you?

Horrela esan dit, astelehen, asteazken eta ostiraleroko bezala, ingeleseko akademiako irakasleak. Berak dio ez dakiela euskaraz, baina nik amarekin entzun diot telefonoz euskaraz hitz egiten.

Etxera itzultzerakoan, etxeko lanak egin behar ko ditut eta, eskerrak gaur inguruneko ariketak bidali dizkidaten, bestela, aitik matematikako eragiketak egiten jarriko nindukeen. Ingeniari izateko matematika asko praktikatu behar omen delako.

—Baina, aita, beti jartzen dizkidazu makina bat biderketa eta zatiketa...

—Eskertuko didazu etorkizuneari.

Etorkizuna, etorkizuna... Beti berdin, eta oraina? Hori oraindik ez dakit zer den eta jada badituzortzi urte. Baina isiltzen naiz, izan ere, behin esan nion bakean uzteko, ez nuela matematikarik egin nahi eta hala erantzun zidan:

—Zuk ez dakizu ezer bizitzari buruz, Xabat! Isildu eta bukatu itzazu eragiketak eta berriro ere horrela erantzunez gero, ez zara zure logelatik aterako!

Behintzat nire logelan nahi dudana egin dezaket. Baina, noski, hori ere ez nion esan.

Azkenean zazpiak! Ama etorri zait ingelesera bila eta batera etxeratu gara.

—Zer moduz eguna, laztana? —bota dit.

—Ondo... -esan diot nahiko goibel.

—Zer duzu, maitea?

—Ama... ez zait ingelesa gustatzen.

—Xabat, hamaika bider hitz egin dugu honetaz, ez hasi berriro. Badakizu oso garrantzitsua dela aita eta biontzat zuk etorkizun duina edukitzea eta ondo dakizu, baita ere, horretarako ingelesa ikasi behar duzula.

—Bai, ama.

—Etxeko lan asko bidali dizkizute gaur? —aldatu nahi izan du gaiz.

—Inguruneko ariketa batzuk. Eta, bai, egingo ditut etxera heltzean.

—Ongi.

Etxera heldu bezain pronto jarri naiz, hortaz, etxeko lanekin. Zortzietan amaitu dut, lur jota. Erlaxatzeko asmoz, sofara joan naiz telebista apur batean ikustera, afaldu aurretik. Memento horretan, iritsi da aita etxera.

—Arratsalde on, familia —agurtu gaitu.

Ama sukaldetik atera eta muxu bat eman dio aitari ezpainenan. Puaj, ze nazka! Baina ez naiz esa-

tera ausartzen, horren ordez, muxuren bat ematera doazen bakoitzean, begiak ixten ditut eta belarriak tapatzen.

Burua egongelan sartu du aitak eta hala esan dit:

—Kaixo, Xabat, egin dituzu etxeko lanak?

—Bai, aita.

—Horrela gustatzen zait! Zeinen langilea den nire mutila.

Bederatziak laurden gutxiagoan deitu gaitu amak afaltzera. Berriro ere porruak! Baina baratzea ez al da hozkailua bezala agortzen? Andereño Karmelek dioenez, bizitza honetan, ez dago ezer infinitua, baina, argi dago, berak ez duela gure ortua ezagutzen.

—Zer moduz lanean, laztana? —esan dio amak aitari.

—Beti bezala, —egin du hasperen aitak— kokoteraino. Londreseko enpresakoekin konferentzia baterako geratuak ginen eta...

Momentu horretan, burua nire pentsamenduetan murgildu dut, ez zaizkit konferentziak eta *business*-ak gustatzen. Ingeles gehiegi gaurkoz. Larriena zera da: niretzako etorkizunik onena bilatzen saiatzen dira, baina aita gogaituta daukan lanpostuan jardun beharko dut. Nik ez omen dakit ezer bizitzari buruz, baina, hara, helduek guk baino kontraesan handiagoak dituzte.

—Xabat? Erantzun! —aitak.

—Bai, barkatu, zer?

—Ea zenbat atera duzun pasa den asteko matematikako azterketan.

—Ah, ondo atera zitzaidan, esan nizun, zortzi eta erdi.

—Zortzi eta erdi? Tira, ez dago gaizki, baina, badakizu, hurrengoan hamarra lortu behar duzu, horretarako kapaza zara. Zertan egin duzu huts?

—Ez naiz gogoratzen.

—Tira, Xabat, esan. Horrela gauza horietan sakonduko dugu.

—Problemetan.

—Problemetan? —nolako aurpegia jarri duen! Ez da horrenbesterako, aizu!— hemendik aurrera problema gehiago egingo ditugu orduan.

—Ados, aita.

—Xabier, ez izan horren zorrotza umearekin —esan du amak— ez da nota txarra.

—Noski ezetz, baina hobetu daiteke.

Guztiok isildu gara. Mahaia jaso eta logelara joan naiz. Orain irakurtzea tokatzen da. Hori amaren istorioa da. Egunero ordu erdiz irakurriz gero, argiagoa izango naizela-edo eta aitak mutil argia nahi duenez, ez zaidala gaizki etorriko dio. “*Geronimo Stilton*”-en bilduma ia-ia guztia irakurri dut jada.

Hamarretan, lotara. Umeek gutxienez, zortzi ordu deskantsatu behar dugula ere diote helduek. Baina nire gelakideek, hamaiketan lokartzen direla diote. Tira, pijama jantzi, hortzak ondo garbitu eta ohera sartu naiz. Orduan, gurasoak etorri zaizkit gaueroko muxua ematera.

—Gabon, Xabat, bihar arte —aitak.

—Ondo lo egin —amak.

—Berdin, bihar arte —nik.

Jada aitak ez dizkit lo-aurreko ipuinak kontatzen. Jada amak ez dizkit lo-aurreko kantuak abesten. Jada handitu omen naiz, jada ez omen naiz horren umea eta helduek ipuin eta abestirik gabe lo hartu beharra dutela diote. Bada, orduan, nik umea izaten jarraitu nahi dut, ez dut handitu nahi, heldua izateak ez du batere gauza onik-eta. Faltan botatzen ditut aitaren narrazioak eta amaren ahotza.

Eta ipuinik eta kanturik ez dudanez, hausnarke-tetan barrendu naiz, gauero egiten dudana bezala. Futbola, ingelesa eta etxeko lanak. Hori da ia-ia egunero egiten dudana. Gurasoek ipunitako egunerokoa da, gainera. Baina badakit nire lagunak ni ingelesean nabilen bitartean, elkarrekin askaria jaten dutela plazan, harrapaketetara jolasten direla edota, bestela, *alturitas*-era. Batzuetan, joko berriak asmatzen dituzte eta gero, horietara batera jolasten gara ikastolan. Tamalez, nik ez dakizkit joko horiek guztiak eta beti azaldu behar izaten dizkidate.

—Joe, Xabat, beti berdin!

—Bai, mutiko! Etorri noizbait parkera gurekin jostatzerara!

Horrelakoak botatzen dizkidate. Nik ere parkean pasa nahi nituzke arratsaldeak haiekin jolasten, baina ezin dut. Behin ere proposatu nien gurasoei plazara joatearena.

—Ikusiko duzu, laztana, hobe da lanean ibiltzea, gero haiek ez dute zurea bezalako lanposturik edukiko —esan zidan aitak.

Beraz, ingelesa bai, plazarik ez. Futbola bai, dantzarik ez. Hamaika ariketa bai, ipuinik eta kanturik ez. Eta nik ipuin eta kanta eta dantza eta parkeak nahi ditut.

* * *

Urteak joan, urteak etorri, gurasoek nahi zutena egin nuen. Eta primeran, gainera! Futbolera jolasen jarraitu nuen nire lagunek horri utzi zioten arte. Honen aitzakiapean, lortu bainuen aita kontentzitzea.

—Aita, futbola utziko dut, nire lagunetatik jarraitzen dudana bakarra bainaiz —hamalau urte nituen nik orduan.

—Baina, Xabat... Zuri gustatzen zaizuna egin behar duzu, ez besteek egiten dutena.

—Aita, erabakia hartu dut.

Disgustu nahiko handia hartu zuen, baina zer egingo diogu, bada?

EZIN IZAN NUEN LORATU

Lide Mikele Billelabeitia

Munguia

Nire leihotik lorategia ikusten dut,
Lau arrosa-landare daude eta bat ez da inoiz loratzen,
Lau arrosa-landare daude eta bat ez da inoiz
zimeltzen.

Lurruna jada ez da kristalean azaltzen
Eta ikusten dudan guztia ez da aldatzen
Beroa eta hotza ordezkutzen diren bitartean,
Nik ez dut halakorik nabaritzen,
Lorategiko arrosa landareak ere ez,
Ez da loratzen.

Norbait etorri da hilda nagoela esatera
eta ez dut sinetsi
Norbait etorri da dena amaitu dela esatera
eta ez dut sinetsi.

Behe-lainoak ez dizkit oinak ikusten uzten,
baina ez dira nireak ikusi nahi ditudanak,
amildegiarenak baizik,
eta jarraitzen dut noraezean oinez,
leiho aurrean amaitzen dudan arte.

Nire leihotik lorategia ikusten dut,
Arrosa-landare bat inoiz loratzen ez dena,
Arrosa landare bat inoiz zimeltzen ez dena,
Hainbat udaberri daramatzat itxaroten,
Gaur, lorezaina agertu den arte.

Norbait etorri da hilda nagoela esatera
eta ez dut sinetsi,
Norbait etorri da dena amaitu dela esatera
eta ez dut sinetsi,
Denbora luzea da hilda nagoela.

NAHI NUKE, BEHAR NUKE
Anne Arrizabalaga Kortabarria
Oiartzun

Margolaria
izan nahi nuke,
izan behar nuke,
aurrean dudan
tristuraren beltzez estalitako mundua,
nire ilusioaren pintzelaz
pozaren kolorez janzteko,
apaintzeko,
alaitzeko.

Lorzaina
izan nahi nuke,
izan behar nuke,
arantzaz jositako
sufirimenduaren lorategia
hiltzen utzi,
eta egunsentiak berarekin
goizero dakarzkigun
esperantzaren arrosak landatzeko,
loratzeko,
bizitzeko, usaintzeko.

Jostuna
izan nahi nuke,
izan behar nuke
zorigaitzaren
hari ilunaz jositako
mundu hau estaltzen duen
zapia desegin eta,
gizon nahiz emakumeak
luzera bereko hari izateko,
beltzak nahiz zuriak
kolore bereko hari izateko,
gaizkiaren haria
ikusezin bihurtzeko,
hari guztiak elkarrekin josiz
hari koloretsuez ospatutako
zorientasunaren zapia ehotzeko,
sortzeko,
amesteko.

Itsua
izan nahi nuke,
izan behar nuke,
errealitateaz haratago joan,
eta ametsen,
desioen,
mirarien,
lurralde ikusteko,
sentitzeko,
dastatzeko.

Beste norabait
begiratu nahi nuke,

begiratu behar nuke,
tristuraren pintura beltza,
arantzaren lorategia,
zorigaitzaren zapia,
errealitatea,
atzean uzteko.
Mundu krudel hau
galtzen utzi
eta
beste berri bat
aurkitzeko.

ITSASOAK SUTU DAITEZKE

Idoia Granizo Uribarrena

Altsasu

Isiltasunaren arnasak
esnatu nau
gure ametsetik,
eta egunsentiak
egun grisa dakar berekin.

Jada konturatu naiz
eguzkiak izar izateari utzi arren,
satelite izaten jarraitzen duela ilargiak.
Berriro ere mugituko ditu lapurrak
izarren argiak.

Baina jada berandu da gurean,
berandu, nahi nuen bezala,
ilargiarekin dantzaz aritzeko;
berandu, buruz gora jartzeko;
aspaldi jausi ginelako
izarretatik behera
gurea omen den
harreman horizontalera.

Eta bitartean,
gure harremanaren zirriborroa
garbira pasatzea ahanzi zitzaigun
eta hartzeari bezala,
emateari ere utzi egin genion.

Orain,
galdutako denbora da
iragana gizentzen duena.

San Juan gaueko suen antzera,
itzali ginen gu ere,
baina frogatu genuen,
ongi frogatu ere,
itsasoak sutu egin daitezkeela
basamortuak urtu daitezkeen neurri berean.

Eta nahiz eta hareazko ozeanoak
zeharkatu nituen zugatik,
zure begiradak izozmendi bihurtu ninduen,
ordurako baina, begiztatu genuen,
ongi begiztatu ere,
itsasoaren eta ortziaren mugak
bat datozela,
eta bat direla,
han,
ostertzean.

Gaur, ibaiak negar egiten du,
behin igaroz gero,
ez zaituela berriro ikusiko
badakielako.

Hodeiek zutaz galdetu didate,
eta haizea ere entzuten dut gauetan
zu noiz itzuliko,
garrasika.

